

# Alboka abesbatza 'Istanbul Koro Günleri'n

**Alboka abesbatzak Turkiako  
'Istanbul Koro Günleri' nazioarteko  
jaialdian parte hartu zuen  
azaroaren 5etik 9ra. Esperientzia  
horren berri jasotzeko Alboka  
Musika eskolako zuzendaria den  
Eva Zubizarretarekin egon gara.**

**M**usikari esker, Alboka abesbatzeko abeslariak sarritan egon dira atzerrian: duela hiru urte Budapesteko musika eskolen jaialdi batean parte hartu zuten, Roman egon dira eta baita Parisen ere. Aurtan, aldiz, Turkiako 'Istanbul Koro Günleri' koroen jaialdian parte hartu dute. Notre Dame de Sion lizeoan, Horan Ermeni Kilisesi eliza armeniarrean eta Muvaffak Benderli Salonu auditorioan eskaini dituzte euren kantuak. "Nahiz eta esperientzia oso polita izan den, oraindik apur bat ikasi eta hobetu behar dugula ikusteko balio izan digu", dio Eva Zubizarretak.

Urtero antolatzen den jaialdi honetan, Albokako abeslariak Europa osoko 16 abesbatzekin egon dira: alemaniarrek, italiarrak, turkiarrak, finlandiarrak eta frantziarrak, besteak beste. Euren harremana izan dute, nahiz eta hizkuntza traba bat izan den. "Batez ere nugu-

sientzat -dio Evak- umeak eta gazteak ondo moldatu dira ingelesarekin, baina gu... Interprete bat izan dugu eta harek ere turkieratik ingelese- itzultzen zuen...!".

## Bazar Handian

Guztira 25 lagun joan dira Istanbulera, 13 eta 27 urte bitartekoak (17 eta 18 urte-

koak gehienak) eta tartean gazteagoak diren 3 mutiko egon dira. "Goizean turismo apur bat egiteko aukera izaten genuen eta 17:00etan hotelerara bueltatzen ginen, gure emanaldiak prestatzera". Ermutik irten aurretik ikusi beharreko lekuen zerrenda egin zuten eta Turkian ikusi dituzten lekuen artean ikusgarrienak meskitak izan dira, Evaren arabera, "eta bereziki, Mesquita Urdina, Santa Sofia, Cistern basilika, Topkapi jauregia, Galata dorrea, Istanbulerako Bazar Handia...". Bertan denetarik erosteko aukera izan dute: pasminak, espeziak eta imitaziozko Converse zapatilak, besteak beste. Horrekin ba-

tera tratuetan aritzeko trebetasuna erakusteko aukera izan dute.

Evaren esanetan bidaia benetan berezia izan da guztientzat. Hegazkinean bidaiatzen zuten lehen aldia izan da batzuentzat eta, gainera, Baskonia Caja Laboral (Tau Ceramica) saskibaloi taldeko jokalariekin egin zuten hegazkinean joanaldia. "Istanbul txundigarria da, kontrastez beterik: oso leku modernoak daude, baina bat-batean otoitzera deitzen duten meskiten soinuak entzun daitezke kaletik. Neska-mutilek ikaragarri gozatu dute, eta guk ere", azpimarratzen du Eva Zubizarretak.

Dorleta Vidal



Alboka abesbatzako kideak Istanbulerako Mesquita Urdinaren aurrean.

drogeteniturti




943 17 93 50  
Erdikokale 2, 1 - Elexoste  
www.euskalbirusa.org

Euskara eta euskaltegia  
egin biak zureak



Teresa Murga, 2. solairua  
Tel. 943 17 09 25



optika

itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51